

AZAROA EUSKAL ATSOTITZ BILDUMETAN

Gizarte bat osatzen duten gizartekideen portaera, balio, mundu ikuskera edota jarrerak ulertzeko ezinbestekoa da gizakiek etengabe parte hartzen duten eguneroko errealitatea ezagutzea. Eta eguneroko errealitate horri buruzko informazioa hizkuntza azterketatik lortu genezake. Izan ere, hizkuntza gizarteetan esanguratsuak diren bizipenen isla da, eta, beraz, gizarte burubideak eta giza errealitatea ikertzeko tresna paregabea.

Baina, nola aztertu iraganeko egunerokotasuna hizkuntza-
ren bidez? Nola aztertu iraganean bizi izan zirenen hizkuntza,
hauek esan zituztenak aspaldi ihes egin bazuten?

Atsotitzak iraganeko gizarteen izaeraren edota mundu ikuskeren berri ematen diguten hitz egiteko modu tipifikatuak dira. Beraz, egokiak dira iraganeko gizarte burubideak edo giza errealitatea ikertzeko.

Hain zuzen ere, artikulu honen xedea da azaroari buruzko euskal atsotitzak aztertuz, antzinako euskaldunen baloreen eta mundu ikuskeren ezagutza handitzea.

Hasieratik esan gura dut azterketa honetan erabili ditudan atsotitzak ez ditudala nik neuk bildu. Aurretiaz batuta dauden atsotitz bildumetan oinarritu naiz. Guztira zortzi atsotitz bilduma aztertu ditut. Dena dela, hemen aurkezten ditudan atsotitz gehienak lau bildumetatik datoz: Azkueren *Euskal Herriaren Yakintza*, Damaso Intzaren *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak* bilduma, A. Zavalaren *Esaera Zaarren Bilduma Berria*

eta Laka, Alkat, Mihura, Etxeandi eta Lekuonaren *Zabar bitz*, *zukur bitz* bilduma.

ANDREAK ANDRE HANDI, DOMU SANTUETAN DIRA AGIRI (Azaroak 1)

Tradizioz euskaldunek ez dute pentsatu heriotza bizitzaren amaiera denik. Hildakoak elkarteko kide izaten jarraitzen dute; horregatik, hain zuzen ere, oso presente daude urteko jai-zikloan.

Hildakoak oroitzeko urteko jai garrantzitsuena Santu Guztien, Domu Santu, Domu Santuru, Omia Sendore edo Omia Saindu eguna da. Egun hori fededunek santu baten jaieguna ez ospatu izana barkatzeko Urbano IV. Aita santuak (1195-1264) kristautentzat ezarritako jaieguna da; beraz, XIII. mendetik aurrera ospatzen dute kristauak.

Domu Santu egunean hildakoak gogoratzen dira (**Hazilean oroit hilez eta haien kontseiluez**) hilobietan argia piztuz (**Domuru Santuruetan, arima pielak kandela argitan. Zavala, 739**), eta horien alde otoitz eginez (**Hazileko otoitzak, hilei buruz bihotzak. Zavala, 407**; **Omia Sendore, Saindu guzien otoitza gure. Zavala, 2349**).

Santu Guztien egunaren inguruan hildakoen omenez sua egiteko ohitura XX. mendeko 60. hamarkadara arte mantendu da Euskal Herrian. Etxe barnean zein elizan kandelak edota argizaiolak pizten ziren hildakoak gogoratzeko. Egia esan, sua etxeko pertsona zein animaliak arriskuetatik babesteko erri-tuen parte izan da gure artean (**Gurmak itsasoan, kandela biztu arasa gainean. Zavala, 1444**).

Bizkaiko zenbait tokitan atsotitz hau esaten da egun honetan: **Santu guzietan, Dominu Santuru tururu (Zavala, 2634)**. Itxura denez, atsotitz hau Bizkaiko umeek Domu Santu egunean abesten duten abesti baten zatia da. Agustín Zubikaraik 1996ko Zeregiñak oar-liburuan dioen legez: “Santu guztien egunean ze-

mendiaren lenengoan, Bizkaiko mutiko nezkatxa askok berba onek abesten dabez: ‘Domuru Santuru. Santuru, txarri andi bat il dogu, buztana ez bestea jan dogu, bere lapikoan daukagu’”.

Domu Santu egunean, etxeko errenta ordaintzen zen. Zentzu honetan, Asentsio egunean (Pazko egunetik 39 egunetara ospatzen den jaia) dirurik ez duten etxekoandreak ere dotore eta arropa berriekin agertzen baziren ere, hau da, pobreenak ere andre handi agertzen baziren ere, errenta ordaintzen zenean, hau da, Domu Santueta, bakoitza den bezalakoa agertzen zen: pobrea zena pobre eta aberatsa aberats (**Asentsio letanietan andreak andre handi; Domu Santurueta guztiak agiri. Azkue, 1656**)¹.

Domu Santu egunean elurra agertzen da mendietan. Negua bere gogortasunean hurbiltzen ari denaren seinale (**Santu guztietan, elurra mendietan. Zavala, 2635**).

Santu guztiaren bezperetan izaten den haize bera izango dela urtean zehar (**Santu guztien bezperetan dabilen haizea, urte guztian ere, lautatik hirutan behintzat, ura bera ibiliko da. Zavala, 2636**). Egun berezietako eguraldiak erakusten du aurrerantzean egingo duen eguraldia.

Azkenik, gogoratzekoa da Santu guztien egunetik eguberrietara haize eta euri gutxi badago leka ugari bilduko dela (**Santu guztien egunetik eguberrietara haize eta euri gutxi, lekak ganbarara. Azkue, 113**).

¹ Antzerako atsotitza agertzen du Azkuek 1261 zenbakiarekin: “Andreak andre handi, Domu Santurueta dira agiri” (Azkue, 1261). Beste atsotitz hau ere agertzen du: “Domu Santurueta andreak andre handi, Asentsioko letanietan guztiak agiri” (Azkue, 1676). Nire ustez, azken hau ez da atsotitz honen jatorrizko bertsioa. Jatorrizkoa bertsio da: “Asentsioko letanietan andreak andre handi, Domu Santurueta guztiak agiri”.

AZAROKO EGUNA, ARGIKO ILUNA

Azaroa hile iluna da; egunak laburrak dira; eguzkia ia ez da agertzen (Hazileko ortzia, neguko eguzkia. Jean Elissalde, 491)²; eta argitu orduko iluntzen du (Azaroko eguna, argiko iluna. Azkue, 1664³; Azaroko eguna, bostak eta iluna. Eusko Folklore 57, 1). Hotza eta iluntasuna dira nagusi azaroan: txerria hiltzeko garai aproposa da (Bostak eta iluna, txerria hiltzeko eguna. Azkue, 424; Txerria matatu, txaramila (tximinia) ixikitu. Azkue, 632).

ZEMENDIEN EREIN GARIE, IDIEN APATXERA BE

Azaroa eta hazila hitza “hazi” hitzetik datoz, eta zemendia “semen” latinezko hitzetik, eta azken honek ere hazia esan nahi du (Zabala, 2000:429). Beraz, argi dago azaroa, hazila eta zemendia hazia ereiteko aroa dela.

Eta hazien artean garrantzitsuena garia da. Alegia, atsotitz bildumetan, azaroa garia ereiteko garaia dela esaten zaigu (Zemendien erein garie, idien apatxera be⁴, Eusko Folklore, 2). Horretarako, lurra ondo ongarritu beharra dago (Eraiteko, abenduko hautsek baino azaroko lohiek hobee. Damaso Intza, 1313). Eta gero itxaron egin behar da, uzta nolakoa izango den ikusteko (Azaroa, Azaroa, egin eta itxaron. Zavala, 395).

SAN MARTIN, BEHARRAK BEHAR ERAGIN (Azaroak 11)

Euskaldunen artean beti izan zaio onespén handia Martin Deunari; horregatik dira hain ugariak Euskal Herrian bere ize-nean eraikitako eliza eta baselizak.

² Atsotitz bera agertzen da Zuhur hitz bilduman ere: “Hazileko ortzia, neguko eguzkia” (Zuhur hitz).

³ Azkuek beste atsotitz hau ere eskaintzen digu: “Arazoko eguna, argitu orduko iluna” (Azkue, 1664).

⁴ Antonio Zavalak ere atsotitz bera aurkezten digu: “Zemendien erein garie, idien apatxera be” (Zavala, 3025).

Lurrak prestatuta dauden heinean, San Martin garia ereiteko egun egokia da (**Jondoni Martine eder, ogia bota lurrer. Zavala, 1648**)⁵; baita baratxuri edo berakatzak ereiteko ere (“Zergatik geratu haz horren ziztrin?”, itaundu eutsen berakatzari behin. -San Martin aurretik ez nindutelako erein”, erantzun eban berakatzak. Azkue, 1841).

Garia dela, berakatzak dela, behar ugari izaten da San Martin inguruan (**San Martin, beharrak behar eragin. Azkue, 90**).

JONDONI MARTI, PREST DENA, PARTI!

San Martin egunean, bestalde, morroien aldaketa egiten zen zenbait tokitan (**Jondoni Marti, prest dena, parti! Damaso Intza, 2461**). Damaso Intzak dioen bezala: “Esaera hau Luzaideko ohitura bati zor zaio: egun horretan (azaroaren 11n) egiten zuten mutil edo morroien aldaketa”. Era berean, ezin dugu ahantzi, baserri askorentzat gaur asten zela urtea: erren-tak ordaindu, txerrikiak gorde eta abar”⁶.

Inazio Eizmendi Manterolak, Basarrik, ere zera diosku: “San Martin egunez egiten ziran baserri aldaketak. Maizter batek nagusiarekin zerbait izan bazuan, edo bere ustez baserri obe baterako tratua egin bazuan, San Martin egunerako us-tuko zuan len bizi zan etxea” (Eizmendi, Basarri, 1992:464).

Euskal atshotitz bildumetan agertzen denaren arabera, San Simon eta San Judas (Urriak 31) egunean sartzen gara neguan. Hala ere, egiazko negua San Martin egunez hasten omen da (**Egiatzko negua San Martinez hasten. Zavala, 772**). Negua aurretik edo atzetik, gehienetan bietatik agertzen omen da (**San Martin, negua atzetik edo aurretik, gehienez bietatik. Damaso Intza, 510**). Izan ere, egun horren inguruan elurra izaten da (**San Martin, elurra gertu din. Zavala, 2589**).

⁵ Atshotitz bera agertzen da Zuhur Hitz bilduman: “Jondoni Martine eder, ogia bota lurrer” (Zuhur hitz).

⁶ Agustín Zubukarairen 1996ko Zeregiñak oar-liburutik hartua.

Giro hotza dago eta mendietan elurra. Hala ere, baserritarrek horrelako eguraldia nahi dute; garaian garaiko eguraldia. Izan ere, San Martinetako denbora eguzkitsuak esan nahi du negua luzatu egingo dela (Jondoni Martinez eguzki, kasu gero otsailari. Zavala, 1649; Jondoni Martine eder, berrogei egunez busti (Laka, Alkat, Mihura, Etxeandi, eta Lekuona, 1984).

SAN MARTIN ZEREKIN, SAN ROMAN HAREKIN, ETA SANTA KATALINA BERAREKIN (San Martin azaroak 11, San Roman azaroak 18, Santa Katalina azaroak 25)

(San Martin zerekin, San Roman harekin, eta Santa Katalina berarekin. Damaso Intza, 2399). Damaso Intzak dioen bezala: “Iru Santu oiek asteko egun berean dire: Azaroan, San Martin 11-n, San Roman 18-an, Santa Katalina 25-ean”. Hau da, San Martin eguna osteguna bada, San Roman eta Santa Katalina ere ostegunean izaten dira.

SAN KLEMENTE PAPA, ELURRA TIPI-TAPA (Azaroak 23)

San Klemente (97. urtean hil zen) egunean elurra egiten du (San Klemente Papa, elurra tipi-tapa. Damaso Intza, 81 eta 770). Beraz, egun hau baino aurretik erein behar da garia (San Klemente pasatu da, ez du balio ogiaren ereitea. Zavala, 2580). San Martin eguna pasatu ondoren, elur eta hotz arriskua gero eta handiagoa da, eta, beraz, garia ereiteko arazoak gero eta gehiago dira. Euskal atsotitzen arabera, garia ereiteko garaia San Lukas egunaren inguruan hasten da (urriak 18) eta San Klementerekin (azaroak 23) bukatzen.

SANTA KATALINA NOIZ DA? BISIGUTAKO GOIZ DA (Azaroak 25)

Santa Katalinarekin udazkena bukatu eta negua etorri da (Santa Katarina, larrazkenaren azkena. Zavala, 2612).

San Martin inguruan ereindako gari aleek erroak bota dituzte Santa Katalina pasatu ostean (**Santa Katarina jitean, erroak hartzen lurrean. Zavala, 2611**). Dena dela, goldea (exa = arado de una pua) erabiltzeko goizegi da oraindik, baita bisiguak arrantzatzeko ere (**Santa Katalina noiz da? Exa garientzat hotz da, bisigutarako goiz da. Zavala, 2608 / Santa Katalina noiz da? Bisigutako goiz da. Azkue, 105**).

Beste batzuentzat, aldiz, txalupak bisiguak arrantzatzen ari dira Santa Katalinetan (**Santa Katalinetan, txalupak errosetan. Zavala, 2609**).

Azkenik, gogoratzekoa da Santa Katalina garbia, edo berdin dena, euririk gabea bada, gaztaina urtea izango dela (**Santa Katalina garbia, gaztaina urte handia (Zavala, 2610)**).

JONDONE SATORDI (San Saturnino Azaroaren 29)

Neguan sartuta gaude eta Kupeletan egon den ardo berria dastatzeko garaia heldu da (**Jondone Satordi, arno berriak ez gaitzala hordi. Zavala, 1641**).

SAN ANDRES: GOIZEAN AZAROAN, ETA ARRATSEAN EZ (Azaroak 30)

San Andres eguna da azaroko azken eguna. Horregatik, hain zuzen ere, goizean azaroa eta gauean abendua dela esaten zaigu (**San Andres, entra el mes: goizean azaroa, eta gauean abendua. Damaso Intza, 913**). San Andres egunak sarrera ematen dio abenduari (**San Andres: goizean azaroan, eta arratsean ez. Damaso Intza, 1790**)⁷.

Era berean, San Andres egunean neguan sartuak gaude, eta ohikoa da elurra egitea (**San Andreseko elurra, neguaren**

⁷ Atsotitz bera agertzen da Damaso Intzaren atsotitz bilduman: "Goizean abendu, eta arratsean ez". "San Andres: goizean azaro, arratsean ez" (Damaso Intza, 1647)

abiadura. Zavala, 2550). Elurra etorri denez, udan zehar larreetan egon diren abereak etxeratu egingo dira (**San Andres buru-kapela, gure behi zarra berez etxera. Zavala, 2549**). Martxoko Andre Mariak arte, abereak etxeko ukuiluan egongo dira.

SAN ANDRES, TXERRIA ASKAN TRABES (Azaroak 30)

Baserriko lanen eta bizimoduaren zikloan San Andres eguna garrantzitsua da. Izan ere, egun horretan txerria hiltzen da (**San Andres, txerria askan trabes**⁸. Azkue, 62; **San Andres, lau kopauan lau tremes, bosgarrena saman trabes. Azkue, 63**). Aurretik hiltzeak esan nahi du etxeko egoera ekonomikoa ez dela ona. Azkuek dioen bezala: “...es signo de penuria, y por lo mismo bochornoso, matar al cerdo antes del día de este santo”.

Azaroan nahiko txerriki izaten da (**Onak dira ezkonduko urtea eta txerria hiltzeko astea. Azkue, 1459**). Edozelan ere, hile honetan ogi eskasia dago. Aurreko urteko gariak bukatuta daudelako, eta gari erein berriak etortzeke; ondorioz, gero eta irin zuri gutxiago dago etxeetan (**San Andres: maia paratu eta ogirik ez. Damaso Intza, 2396**). Azaroko mahaian lazki (ogi beltza) eta basakia (abere basatiaren haragia) izaten da jaki (**Lazki eta basaki, azaroko jaki. Azkue, 1741**).

HAZILA HOTZ, NEGUA MOTZ; HAZILA BERO, NEGUA GERO

Urte guztian zehar, garaian garaiko eguraldia nahi da. Horrela, azaroan eguraldi hotza nahi da (**Hazila hotz, negua motz; hazila bero, negua gero. Azkue, 1665**⁹). Izan ere, zenbat eta negua bizkorrago hasi bizkorrago bukatuko da.

⁸ Damaso Intzak ere atsotitz bera eskaintzen digu: “San Andres: txerria askan trabes” (Intza, 2474)

⁹ Atsotitz bera agertzen da Zuhur hitz bilduman ere: “Azaroa hotz, negua motz. Azaroa bero, negua bero” (Zuhur hitz).

Ikuspuntu honetatik, azaroko izarrekin ez fidatzeko adierazten zaigu; nahiz eta izarrek ikusi zeruan, edonoiz agertu daitezke euria, elurra eta eguraldi hotza (**Plazako neska ederrak, eta azaroko izarrek, azken berdin xamarrek. Zavala, 2509**).

Elkartearen biziraupen fisiko eta psikologikoak eguraldiaren zikloak aldaketarik gabe errepikatzea eskatzen du. Ne-guan neguko eguraldia nahi da eta udan udakoa (**Negua ez bada neguan gertatzen, udak ere huts egingen. Zavala, 2185**).

ONDORIOAK

Egutegiko 11. hila da azaroa; hazila edo zemendia izenak ere hartzen ditu. Esan bezala, haziaren aroa da.

Atsotitzetan barrena agertzen diren santuak dira: Domu Santu Eguna (azarook 1) San Martin (azarook 11), San Roman (azarook 18), San Klemente Papa (Azarook 23), Santa Katalina (Azarook 25) eta San Andres (azarook 30).

Azaroarekin azterketak erakusten digu euskaldunek hildakoekiko duten lotura. Hildakoak komunitatearen parte izaten jarraitzen dute.

Bestetik, azarorekin lehen elurrekin, hotzarekin eta iluntasunarekin lotzen da.

Baserriko lanei dagokionez, azaroa txerria hiltzeko eta haziak ereiteko (bereziki garia) garai aproposa da.

BIBLIOGRAFIA

- Azkue, R.M. (1989): *Euskal Herriaren Yakintza, Literatura Popular Del País Vasco III Proverbios, Modismos, Lengua-je Infantil, Trabalenguas, Sobrenombres, Acertijos*. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Madrid, (Tercera Edición).

- Eizmendi, I. "Basarri": *Nere Bordatxotik*. Auspoa, Tolosa, 1992.
- Intza, D. (1974): *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak*. Institución Príncipe de Viana.
- Laka, J.L., Alkat, E., Mihura, F., Etxeandi, I. eta Lekuona, M. (1984): *Zabar hitz, zubur hitz*. Bertsularien Lagunak Elkarte.
- Larresoro (1971): *Atsotitzak eta Neurtitzak*. Editorial Herri-Gogoa, Donostia.
- Zabala, P. (2000): *Naturaren mintzoa. Egunez egun, sasoién gurpilean*. Alberdania, Irun.
- Zavala, A (1985): *Esaera Zaarren Bilduma Berria I eta II*. Auspoa, Tolosa.

Patxi Juaristi